

ESPIRITUALITATE BIDEAK PASTORAL ERABARRITZEA BULTZATZEKO

Euskalerriko Eleizan pastorgintzan ari gareanok, pastoral erabarritzean buru-belarri sartuta gabilta. Naizta askotan ez ilun bai ilun aurkitu, Euskalerriko Eleizaren zeruan argi-izpi batzuk argitzen ari dirala-ta nago. Batzuk Donostiatik datoz. Beste batzuk Bilbotik. Eskerrak argi-izpi orreei, badakigu pastoral erabarritzearen arnasa barneko espirtuarengan aurkitzen dala. Badago bai Euskalerriko Eleiza, espirtuaren premiña gorrian.

Ta orixe da, geienbat, Donostiako ta Bilboko gotzain biak Euskalerriko Eleizan nabaritzen daben bearrizana. Batez be, pastorgintzan gabizanon artean, barne esperientziaren utsunea bistakoa dalako.

Mistikoen ildotik ibiltera deika jatorkuz gure gotzainak. Baina ain ekintzaileak, legezaleak eta praktikoak garanez, kostauko jaku euskal eleiztarroi, mistikoen sakontasunaz gauzak barneratzea. Ostera be, plangintzetan eta plataformetan eta organigrametan eta antzeko antolaketetan jausiko ete garan arriskua ortxe sumatzen da ia konturatu barik. Ez dot uste, ortik doanik gure gotzainak nai daben pastoral erabarritzea.

Aipatzekoa dogu Juan Marik, Arantzazuko batzarrean, otsailaren asieran, egindako itzaldi zoragarria. Baita Bilboko gotzainak, martxoan, argitaratu dauan txostena be distiratsua dogu.

Biak espiritualitatearen bideak dakarskuez gogora pastoral erabarritzea aurrera eroateko. Bestela gure Euskalerriko Eleizak enpresa baten antza geiago izango leuke, Jaunaren Eleizarena baino. Ta or dago eleiztarron tentazinoa ta arrisku gordina.

Donostiatik argi-izpiak

Donostiako gotzainaren itzaldiaren ideia nagusiak, aurtengo garizuma-pazko pastoral idatzian be ia letraz letra agertzen dira. Karta onetan erraz ikusten da Juan Mariren eskua. Esaterako Arantzazuko batzarrean egon ginanok, laster konturatu ginar, esate baterako, besteak beste, urrengo testu eder onen iturri garbia non aurkitzen dan. Merezi dau gogoratzea, bertan baitago pastoral erabarritzearen gakoa. Eta arnasa eta arima be bai.

“Gaurko egoerak konfiantzaren espiritualtasuna lantzeko eskatzen digu, ez baikortasunaren espiritualtasuna. Orokorrean, gaurko egoerak eta etorkizunari begiratzeak ez dute baikortasunik pizten gure baitan. Ez dirudi 25-40 urtera gauzak hobeki joango direnik. Badugu, hala ere, arrazoirik konfiantza Jainkoaren asmo salbatzaile aldaezinean jartzeko eta, beldurrak oro gaindituz, asmo salbatzaile hori orain arte izan duen eta aurrerantzean izango duen gauzatzeko modua Jaungoikuaren ardurapean uzteko.

Gaurko kultura eta gizartearen egoera horren bidez, leialtasunaren espiritualtasuna eskatzen dio Jainkoak bere Elizari, eta ez arrakastaren espiritualtasuna. Ez da denbora asko, harriak Abrahamen seme-alaba bihurtzen dela ikusten dugu. Jesusek ere jasan zuen proba hau. ‘Obeditzen ikasi zuen? (Heb 5, 8). Gero eta argiago ulertu zuen leialtasuna eskatzen ziola Aitak, ez berehalako arrakasta.

‘Arrakasta ez da Jainkoaren izeneko bat’ (M. Buber).

Gure garaia bizi behar dugun zerbitzu ilunarena da; beste garai batzuetako handitasun eta aginte-indarririk gabe egina, ez beti ondo ulertua eta, maiz, ezta eraginkorra ere, jendeak Jainkoa aurkitzeko ahaleaginean.

Espiritualtasun apala bizitzeko deia jaso dugu, ez ordea, errudun sentiarazten gaituen espiritualtasuna. Ezin dugu esan bekatuen erruz jartzen diola gizarteak fedeari hainbeste eragozpen eta oztopo. Oztopo horietako asko kulturak jarritakoak dira eta hori ez dago gure esku. Onartzen dugu lehen-go eta oraingo geure erantzukizuna, gauzak horrela direla aitortzen eta zuzenbideratzen dakitenen apaltasunez eta, orobat, historiaren eragile nagusia Jainkoa dela dakitenen baretasunez.

Gauza asko egiteko dagoela ohartzeak eta ondo egin ezin dugula ikusteak urduri jartzen gaituen garai honetan, jardute barearen espiritualtasuna gauzatu behar dugu. Ebanjelizatzeko griñak Jesusi ez dio lokartzen uzten, baina baretasuna ez dio kentzen. Ez da gaixo guztiak sendatzeko, gosetu guztiak asetzeko, gatibu guztiak askatzeko, desbideratutako guztiak erakartzeko irriak itoa bizi. Ez zuen dena egiteko asmorik izan. Erreinua betetzen hasten ari zela erakusteko egintza esanguratsuak egin zituen. ekitzaren kalitatea bilatu behar genuke kantitatea baino gehiago.

Kanpoan babesik gabe egoteak sinestedun askorengan, apurka-apurka, barneko basamortua sor dezakeen historiako aldia honetan, Elizak fededunei lagun egitea, senide-harremanak izango dituzten elkarteak sortzea, arduradunak senideengandik

hurbil egotea, munduan eliz esparru sanoak, 'ekologikoak' sortzea eta horrelakoak izan daitezke gure espiritualtasunak behar dituen jarrerak.

Kanpora begira bizitzea nagusitu zaigun garai honetan, ezinbestekoa dugu barnera begiratzen lagunduko digun espiritualtasuna: ez intimista; bai ordea, gizakiaren barne espazioak landuko dituen eta egindako zauriak sendatuko dizkion espiritualtasuna (..)

Kontzilioak, beste ezer baino lehen, sinesteduntzat nahiz sinisgabeentzat fede eta elkarrizketa-esperientziaren hizkera erabiltzea aukeratu du; nahiago izan du jarrera ulerkorra eta pastoralá, indarrean zegoen zorrozkeria eta kondenazioa baino (...)

Arrozoiketa zorrotza alde batera utzi gabe, Kontzilioak, era berean, sinbolo eta testigantza erako hizkera argia hautatzen du. Sinbolikoa aukeratu, gizakiaren eta munduaren errealitatea Jainkoaren osotasuna gogorazten eta aurreratzen duen zeinu bezela aurkeztea proposatzen da.

Kontzilioak nahiago izan du konbentzimendua-
ren hizkera erabili, aurkezpen polemikoarena baino. Misterioari begiratzeko esaten digu, ez arrazionalki aztertzeke. Jainkoaren dohainak eskertzerá eta azkeneraino eramatera bultzatzen gaitu.

Kontzilioko Batzarrak kristau-mezuaren proposamen garbia eta atsegina aukeratu du munduari aurkezteke eta saihestu egin du inposaketa itxura oro eta funtsean mesfidati edo ezkor izan daitekeen jarrera oro.

Kontzilioko aukera hauek jarraibide guztiz argiak dira Elizaren pedagogia bideratzeko fedea piztean”.

Gaurko gizartea ebanjelizatzeko, bearrezkoak ditugu konfiantzaren espiritualitatea, ez baikortasunarena; leialtasunaren espiritualitatea, ez arrakastarena; humiltasunaren espiritualitatea, ez errudun sentirazten gaituana; gauza txikien espiritualitatea, ez kopuru andien nostalgikoena; pozaren ta alkartasunaren espiritualitatea, ez alkar besakakoa; jardute barearen espiritualitatea, ez hiper-erantzukizunarena; barnera begiratzen dauan espiritualitatea, ez kanpora begira jartzen dauana.

Gure pastoral erabarritzearen izkera bera be, Vatikanoko II. Kontzilioaren antzekoa izan bear dau. Kontzilioaren estiloa geureganatzeko, naitaezkoa dogu fededunekin eta fedebakoe-kin alkarrizketaren berbetea, ez berbeta gogor eta madarika-tua; sinbolo eta testigantza erako berbetea, ez arrozoi uts eta zorrozkeriaz heterikoa; konbentzimentuaren berbetea, polemikoaren eta topekariaren orde; kristau mezuaren proposamen atsegina egin, inposaketa itxurak eta ezkor jarrerak baztertuz.

Ortik doazela ta nago, Donostiko gotzainaren argi-izpiak, pastoral erabarritzearen bideak bultzatzen.

Bilbotik be argi-izpiak

Bilboko gotzainaren martiko txostena erabarritzeaz, argitsu jatorku. Idazki laburra eta mamitsua era berean. Zer ulertzen dogu erabarritzeaz? galdezka jatorku Bilboko gotzaina. Eta argia bere erantzuna:

“Erabarritzea ez da pastoral lurraldeen berrantolaketeta edo giza baliabideen birbanatze hutsa; ezta gure lekuko eleizcaren gaurko arazoak konpontzeko panazea ere. Erabarritzeak ez dau lanen gehitzerik era-

gin behar, gure muga eta makaltasunak doguzan sa-soian hain zuzen ere (...)

Zer da, gure ustez, gitxi gorabehera, ‘patoral erabarritzea’? Jaungoikoagana bihozbarritzeagaitik, apaltasunez, ‘hemen nago, bialdu nagizu’ esateko prestasun espiritual barritua da. Erabarritzeak beste hau ere esan gura dau: gure ahaleginak funtsezko eta beharrezko gauzetan batzea; Jaunak, gaur, bizkaiko elizea osotzen dogunoi eskatzen deuskunari erantzuteko. Eraginkortasun haundiagoz eta eskakizun ugariak eragindako presinotik askatuta jarduteko, guztion-gotzain, abade, lekaide, lekaime eta laikoon-ekarpenak batu behar doguz, benetako eliz komunioan, egiteko apostolikoetan”.

Erabarritzearen protagonista Espiritua Santua dala azpimarratzeko I. Hazim-en testu ederra bereganatzen dau:

“Espiritua bera da munduan jarduten dauan barritasuna. Bera da Jainkoaren presentzia gure artean, gure espirituaren ondoan. Bera barik, Jaungoikua urrin geratzen da, Kristo lehenean dago, Ebanjelioa letra hila da, Elizea antolaketa hutsa, autoritatea despotismoa, misinoa propaganda, gurtza oroitzapena, kristau jarduera esklaboen morala. Baina Espirituarengan... mundua altxatu egiten da eta oihu egiten dau Erreinuaren erditzean, gizakiak haragiaren aurka borrokatzen dau, Kristo berbiztua hor dago, Ebanjelioa bizi indarra da, Elizeak komunino hirukoiztarra adierazoten dau, autoritatea zerbitzu askatzailea, misinoak Mendekoste, liturgiak salbamenaren memorial eta aurrerapena... Espiritu Santua Jaun eta biziemoile da”.

Testu zoragarri au aipatu ondoren, dinosku Rikardo jaunak:

“Espiritu Santu barik, erakundeak ez leuke ‘betiko bizitaraino txirristaka darion ura’ bideratuko, azterketa soziologiko eta kulturalak ez litzatekezala apostolikoki argitasun haundiagoz jarduteko tresnak eta programazinoak bide pastoral ez ezik zama izango litzatekezala. Antolaketarako osagaien estimu neurritsua mesedegarria da. Funtsezkoa, Beragan sinisten dabenak eta bere aginduei jarraitzen deutseenak suspertzen dituan Jaungoiko biziaren testigu izatea da. Espiritu Santuaren bidez bakarrik ikutu daikegu ebanjelizatzean gizakien bihotza, federa eta Jaungoikuaren eta lagunurkoaren maitasunera zabaldu daitezana”.

Elizearen misinoa

Pastoral erabarritzearen elburua ez da erabarritzea bera, ebanjelizatzea baino. Orixe da Elizearen misinoa. Baina ez edozelako ebanjelizatzea. Argi baino argiago geratzen dira Bilboko gotzainaren idazkian zer dan ebanjelizatzea eta zeintzuk diran ebanjelizatzearen zutabeak. Ona emen bere herbak:

“Jesus bera da Jaungoikoaren barri ona; horregaitik, hauxe da ebanjelizatzearen berarizko helburua: fedearen bidez, pertsona bakoitzaren eta Jaungoikoaren Aurpegia eta betiko bizia garoazan Bidea dan Jesusen arteko bategitea eragitea. Ebanjelizatzea ez da, beste barik, justizia, alkartasuna, adiskidetasuna, bakea, zintzotasuna, askatasuna, erantzukizuna, eskuzabaltasuna... lako giza balio garrantzitsuak teorikoki eta praktikoki irakastea. Fedeak eta Jesukristori jarraitzeak emongo deutso guzti orri kristau nortasuna (...)

Hiru zutabetan oinarritzen da Elizearen bizitza eta misinoa, bere kristau eta apostolu bizitasuna:

Jaungoikoaren Berbea, sakramentuak eta karitatea. Hiru alderdiok alkar sendotzen dabenez, bakar batek ere ezin dau huts egin gutariko bakoitzarengan. Ebanjelizatzeak era askotako osagaiak ditu: gizateriaren barrizatzea, testigantzea, ageriko iragarpena, bihotzeko atxikimendua, alkartean sartzea, zeinuak barruratzea, apostolutzarako ekimenak. Era bateko eta besteko alderdiok ez dira bateraezinak, osagarriak baino. Elizea, ‘comunino misiolari’ lez jardunez, ebanjelizatzearen eragile osoa da; kristinau guztiontzat eta bakoitzarentzat da Elizearen bizitzan eta misi-noak parte hartzeko deia”.

Berealaxe xeetasun interesgarri bat egiten dau Rikardo jaunak. Ondo baino obeto jatorku pastoral arloan lan egiten dogunoi. Ez dago zertan aurrez aurre jarri bear pastoraltzan “mantenimendua” eta “ebanjelizatzea”. Ain dimentsiobakarrekoak garanez, gatx egiten jaku gauza bat aurrera ataratzea bestea mapatik borrau barik. Akats au odolean daroagu euskaldunok. Esaterako, geure geurea dogun kirola, pilota da. Eta pilota partiduan ez dago enpaterik. Batak irabazi eta besteak galdu egin bear dau.

Pastoraltzan be, akats onek kalte aundia egiten deusku. Ondo jatorku gure gotzainaren xeetasuna:

“Esandakoaren arabera, pastoraltzan ezin dira “mantenimendu” eta “ebanjelizatzea” aurrez aure jarri; Eliza barik ez dago misinorik eta kristinau barik ez dago bialdurik. Ebanjelizatzeako fedea indartu behar dogu, fedea pertsonalizatu, fedearen esperientzia sustatu, ‘Jesukristo barru-barrutik ezagutuz’, geure burua teologikoki hezi fedean, kristau fedearen arabera moralki bizi.

Predikuak eta katekesiak lehentasuna dabe ebanjelizatzean; maitasunak, Jesusek maite izan ginduzan

lez, bere adierazpen pertsonal eta instituzional desbardinetan, egiaztatzen dau gure Jaunaren ikasle izatea eta Elizeak iragarritako berbea babesten dau; otoitza da fedearentzat, arnasketea bizierantzet dana, hau da, sarri otoitz egin barik kristinaua makaldu egiten da eta apostoluak amore emoten dau. Anemia espiritualak larriki makaltzen dau misiolaritza. Ebanjelizatzaile bakoitzarengan azalduko dira fedearen berbea, maitasunaren egintzak eta otoitza, Espiritu santuak gure aurrean zabaldu deiozan ateak Ebanjelioari gizakien bihotzean eta gizartean.

Ebanjelizatzearen protagonista, eta gu tresna pertsonalak gara. Nahiz eta fedearen Jaungoikoa ahaztu eta besteenganako maitasunari ardurabakokeria erakutsi, gizonaren eta emakumearen bihotza interpelatzen dauan Ebanjelizatzean eraginkortasunez lagundu daigun, santutasunera iristeko gurari zintzoa esaktzen jaku. Zenbat bider hunkitu gaitue barru-barrutik, kultureak, adinak, osasunak, e. a... mugatuta egon arren, Jaungoikoagazko komunino sakonetik berba egiten deuskuen pertsonen berbek eta ereduak! Munduko bidegurutzeetan, santuek erakusten deuskue Elizearen bide zehatza.

Elizeak jasan daiken makaltasunik haundiena pekatutik eta harrokeriatik datorrena da; oster, gure indarra Jaunagan dago. Munduaren gain garaipena emoten deuskuna gure sinismena da. San Paulok, jazarpenen eta zailtasunen erdian, hauxe oihukatu eikean: Gustora harrotuko naz, beraz, neure makaltasunaz, Kristoren indarra niregan agertu daiten”.

Orretarako izan bear leukeez unitate pastoralak, ekipo pastoralak edo ministerialak eta eleiz erakunde guztiak. Bestela modan dagozan erakunde pasakorrek besterik ez dira izango. Eta orren arriskua bistan dago. Eskerrak Donostiako ta Bilboko

gotzainen argi-izpiei, baliteke arrisku ori bideratzea. Beti be er-
ne biotza eta adimena Espirituaren arnasari. Nonai egiten dau
dei. Geienetan gitxien uste dogun pertsonengan. Espirituaren
arnasak ez dauko inondiko mugarik. Ni neuri beti gustatu izan
jat Josue eta Moisesen arteko pasadizu polit au. Merezi dau
kontatzea. Zein argi ederra dakarskun! Testua Kerexetaren
Bibliatik artuta dago.

“Moisesek Jaunaren itzak erriari jakiñerazo eutsa-
zan; gero, erriko irurogei ta amar zaarrak batu eta txa-
bola-inguruan jarri ebazan. Orduan, Jaunak, lainoan
jatsirik, Moisesi itz egin eutsan; eta arek barruan eukan
espiritutik artu eta irurogei ta amar zaarren gañera isu-
ri eban. Espiritua arein barruan sartuaz batera, profeta
egiten asi ziran, baina ez eben iragarpenik egin.

Txabolategian gizon bi geratu ziran: bata, Eldad
eritxona; bestea, Medad. Arein barruan be espirtua
geratu zan; izan betxabolatik urten ezarren, biak zaa-
rren artean aukeratuak ziran. Eta txabolategian profe-
tatzari ekin eutsoen. Orduan, mutiko batek
Moisesegana ariñeketan joan eta auxe esan eutsan:
'Eldad eta Medad profeta egiten diardue txabolate-
gian.' Nunen seme Josuek, gaztetarik Moisesen morroi
zanak, auxe esan eban: 'Moises, ene jauna debekatu
egiezu' Baiña, Moisesek auxe erantzun eutsan:
'Minduta jarriko nazala uste dozu? Ai, arren, Jaunaren
erri guztia profeta balitz, eta arein gaiñean Jaunak bere
espirtua ezarriko baleu!'. Gero, Moises txabolategira
biurtu zan Israelgo zaarrakaz batera” (Zen 24, 1-30)

Espirtu Santuaren monopoliorik daukon aita-amaren se-
me-alabarik ez da jaio oraindino: “nai dauan tokian joten dau
aizeak, entzun bee bai egiten dozu aren otsa; baiña ez dakizu
nundik datorren, ezta nora doan be” (JN 3, 8).

A. Olea